42. zbk.

kotarro

2018ko maiatza — debaldeko alea

Garean Agenda

LIZARRAN KANTUZ
Maiatzak 26
12:30 – Koroatze plazatik abiatuta

TXOKOLIPUINAK
Maiatzak 30
18:00 – La Bota Elkartea

LITERATUR SOLASALDIA
Maiatzak 31, *Bihotz handiegia*
Eider Rodriguezekin
19:30 – Liburutegia

IRAKURRI, GOZATU, OPARITU
Maiatzak 31 arte

BESTELAKOAK
Maiatzak 25 eta 26
Puy eguna (Lizarra)

Ekainak 2
Euskararen Eguna (Villatuerta)

Ekainak 8
Ager Vasconum II Lehiaketaren sari banaketa
20:00 – Los Llanos Kulturagunea

Ekainak 9
Deierri Eguna (Gorozin)
Kontzertua: Tximeleta eta Oihan Vega

Garean Euskaldunon Elkartea

Euskal zinema eta zinema euskaraz

Euskarazko zinema Lizarrako aretoetako pantailetara iritsi da: Urtarriletik hona sei film Los Llanos Zinemetan.

Euskal zinemagintza loraldi betean dagoela ematen du. Hala, 2014tik aurrera kalitatezko film ugari ekoitzi ditu, besteak beste: *Loreak* (52.000 ikusle inguru, Oskar sarietan lehiatu zen), *Amama* (60.000 ikusletik gertu, 2015eko Zinemaldiko Euskal Zinemaren Irizar Saria), *Igelak* (20.000 ikusle pasa), *Handia* (125.000 ikusle, Goya Sarietan 10 sari, inoizko euskal filmik ikusiena) eta *Errementari* (25.000 ikusle momentuz, 2017ko Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen ikusleen saria).

Halaber, ezin ahaztu aurretik hainbat komediek izandako arrakasta: 2005eko *Aupa Etxebeste!*-k 70.000 ikusle lortu zituen, 2006ko *Kutsidazu bidea Ixabel*-ek ia 38.000 eta 2012ko *Bypass*-ek 36.000 inguru.

Lizarran zinema euskaraz. Lizarrara euskarazko film bakarra edo bi ekartzen ziren urtero, aurten sei izan dira lehen bost hilekoan, familia giroko lau eta helduendako bi, inoiz baino aukera gehiago beraz. Ikusienak otsaila hasierako marrazki bizidunetako *Oihaneko Kuadrilla*, 134 ikuslerekin saio bakarrean, eta martxoko *Errementari* fantasiazko filma izan dira, honakoa 120 ikuslerekin. Osotara 367 lagun bost film eta beste hainbeste saiotan (Oharra: *Handia* filma maiatzaren 18rako dago programatuta, edizioa ixterako ez dugu ikusle daturik). Halaber, nabarmentzekoa da filmen estreinaldia eta Lizarrara ekartzea berehalakoa izan direla.

Bestalde, aipatu bezala, bi motatako filmak izan ditugu orain arte: Urteko estreinaldiak eta euskaratzen diren animaziozko filmak. Azken hauek berebiziko garrantzia hartuko dute denborarekin, familiendako kalitatezko zinemaren eskaintza jarraituak «haurrentzat, eskolatik eta etxetik kanpo beste modu bateko bizipenak» jasotzea erraztuko baitie, izan ere «filmek ametsak eragiten dituzte, kontakizunarekin lotzen ditu ikusleak eta pertsonaiekin bat egiten dute egoera askotan», eta hortaz, gaztetxoen kasuan, «zeresan handia du film horiek txikitatik euskaraz ikustea, jasotzen duten hizkuntza horretan hasiko baitira amets egiten haur horiek, eta pixkanaka hizkuntza horretan pentsatzen hasiko dira», pasartea era.eus webgunetik jaso da.

Hobekuntza hauek ez dira kasualitatea izan. Urtearekin batera Udalak enpresa berri bati eman zion Los Llanos Kulturaguneko aretoak kudeatzeko ardura eta kontratuan, besteren artean, honako bi baldintzak ezarri zituen: «Programazioan sartzea zinema aretoen zirkuitu komertzialera iristen diren euskarazko edo euskarara itzulitako film guztiak» eta «Bete Estella-Lizarrako Udalaren Euskararen Ordenantzaren betebeharrekin, erabiltzaileekiko komunikazioei dagokionez: kartelak, web-a, salmenta puntu informatizatuak, *e.a.*». Kasualitatetik gutxi du beraz aurten zinemetan eman den aldaketak.

LIZAR
Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINTZA
Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarjard@hotmail.com

Helbide berria!
ekolore lizarra .com
Mundua deskubritzeko jostailu eta jolasak
Kale Nagusia, 23 · Estella-Lizarra · 948 985 306

Proposamenak Udalari euskarazko zineman:

Familia giroko pelikulak. Film bakoitzarekin emanaldi bakarra proiektatu da. Gutxienez bitan ematea komenigarria litzateke, larunbat eta igande arratsaldeetan adibidez, familiei bi egun aukeran emateko. Are gehiago irailean hirugarren aretoa zabaltzen denean.

Bertsio originala (helduendako). *Errementari* estreinatu zenean lau bat saio proiektatu ziren asteburu berean, hauetako bakarra izan zen bertsio originalean, hau da euskaraz. Gainera, filma gaztelaniazko azpitituluekin eman zenez, errazagoa beharko luke saio gehiago edo guztiak bertsio originalean ematea.

«Zinema euskaraz» programa %100ean probestu. Urtarrila eta maiatza bitarte «Zineuskadi»ren programa honi esker hilero euskarazko animazio film bat eraman da zinemetara. Gehienak ekarri badira ere, badira bi ezetz: *Harpetarrak* otsailean eta *Grufaloa* maiatzean.

Lizarrako euskal agenda kontrastatu. Hilean helduendako zortzi film ezberdin eman ohi dira Los Llanos zinemetan eta familiendako beste mordoxka bat. Euskarazko filmek, orain arte bezala emanaldi bakarra baldin badute, hauen eguna oso ongi aukeratu beharra dago. *Maya Erlea* eta *Leo da Vinci* familia-filmen datak ez ziruditen egokienak, lehenak inauteri koloretsuekin bat egin zuelako eta bigarrenak *Nósaltres Prest!* jaialdiarekin eta hurrengo eguneko *Go!azen* antzezlanarekin.

Tokiko euskara eragileekin harremana. Familia giroko filmen ikusle potentzialak dira D ereduko ikastetxeetako haurrak, Lizarrakoak zein landa eskoletakoak. Helduendako filmetan, berriz, euskara elkarteak, euskaltegia eta hizkuntza eskola. Harreman zuzena izatea eta publikoa zaintzea hauen asebetetzean lagunduko luke.

Ziklo tematikoak. Ohiko asteburuko emanaldietatik harago asmoa dago beste era bateko kultur eskaintzak egiteko, besteak beste gai baten inguruko zikloak: 2018ko martxoan «Zinema eta emakumea» zikloa eskaini zen edo «Gabonetako Haur Zinema» zikloa… Zergatik ez «Euskal Zinema» zikloa edota, adibidez, «Hizkuntza Gutxituetako Zinema» jatorrizko bertsioan?

LIBRERIA-PAPELERIA
INO
LIBURUDENDA-PAPERDENDA
Zapateria Kalea, 3
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA

Jatetxea
Volante
Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak
Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

II «Ager vasconum» literatura lehiaketa

Iaz 146 lan aurkeztu ziren Ager Vasconumera (57 Lizarrako Merindadetik) eta 2018an 154, hauetatik ia ehun Estellerrikoak

2017ko Ager Vasconum I sariketa (Tafallako Udalaren argazkia)

Orain dela urte batzuk Tafallako Udalak literatura lehiaketa bat euskaraz sortu zuen, 12-30 urte bitarteko gazteentzat. Sari hori hasieran bakarrik Tafallako eskualdean gauzatzen zen, baina 2015ean Nafarroako Erdi Aldera eta Erriberara hedatu zen. 2017an, Nafarroako hegoalde osora zabaldua, "Ager Vasconum" Literatura Lehiaketa Euskaraz bilakatu zen.

Lehenbiziko edizio horretan ondoko udalek parte hartu zuten: Lodosa, Zangoza, Erriberri, Tafalla eta Lizarra. Aurtengo edizioan Irantzu Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea ere sartu da. Baita ere azpimarragarria da fundazio batzuek emandako laguntza (Altaffaylla, Elkar) ilusio eta eskuzabaltasun handia erakutsi baitute proiektuarekiko: lehiaketa zabalduz, sariak oparituz, etab.

Helburua da euskarazko sormen literarioa sustatzea gazteen artean, toki ezberdinetako ekimenen sakabanaketa saihesteko, eta gazteak motibatzea euskaraz idatz dezaten.

Lehenbiziko edizioa Tafallak antolatu zuen eta aurtengoa Lizarrari dagokio, hortaz, ekainaren 8an, ostirala, gure hiriko Los Llanos Kulturagunean sari emanaldia eginen da 20:00etan hasita. Bertan sariak emanen zaizkie kategoria bakoitzeko eta eskualde ezberdinetako irabazle guztiei eta ekitaldian herriko musikariek parte hartuko dute.

Euskararen Eguna Villatuertan

Ekainaren 2an Irantzu Mankomunitateko herrien XI. Euskararen Eguna ospatuko dute

Irantzu Mankomunitateko herriak 2006an hasi ziren euskararen eguna antolatzen, Mankomunitateko euskara zerbitzu lortu berriaren eskutik. Lehen urte haietan Villatuerta, Lezaun, Oteitza, Abartzuza eta Zurukuainen (Deierri) antolatu ziren eta, 2011ko edizioan, Irriherri elkarteak hartu zion lekukoa Mankomunitateari. Ordutik Garisoain (Gesalatz), Jaitz, Oteitza eta Lezaunen antolatu dira. Azkenekoa, X.a, Abartzuzan izan zen 2015ean. Abartzuzako festaren ondotik Elkarteak erabaki zuen euskararen eguna bi urtean behin antolatzea: Korrika Jaia urte batean eta Euskararen Eguna hurrengoan.

Aurtengo edizioan omendu berezia izanen da, 25 urte beteko baitira helduen euskalduntzerako taldea sortu zela Villatuertan. Gainera, hastapen horietatik ere, euskal kulturaren ikur eta enbaxadore nagusienetakoa iritsi zen herrira: Olentzeroren kalejira. Ikastalde honek ekin zion herrian Olentzero antolatzeari.

Aurtengo egitaraua xume bezain ederra izanen da. Eguraldia ona bada El Rebote pilotalekuaren inguruan kokatuko da, Udaletxearen atzean:

11:00. Ekitaldia. Kale girotzea (txaranga, buruhandiak, momotxorroak, ur-zezena). Haur tailerrak.

14:00. Bazkari herrikoia.

15:00. Puzgarriak eta mahai jolasak.

17:00. Herrien arteko ginkana. Koreografia. Euskaraokea. «Lizarraldeko Dantza Tailerra» ikuskizuna.

20:00. *Neu'e Buruben* taldearen kontzertua eta disko berriaren aurkezpena. Gauean festa Jubilatuen tabernan.

Neu'e Buruben taldeak disko berria aurkeztuko du

Bazkari menua: Entsalada, potxada (haragiarekin edo gabe), postrea, kafea, kopa, edaria. Haur menua: Makarroiak tomate & saltxitxekin, postrea.
Txartelak: 10 € (Haur menua 6 €). Villatuertan Lara eta kiroldegiko tabernak (astelehenetik ostiralera), Abartzuzan Jubilatu taberna, Irantzu Euskara zerbitzua, Lizarrako AEK.

Foto-inkesta

Zinema

Urte hasierarekin batera aldaketa handiak ari dira gertatzen Los Llanos Kulturagunean. Besteak beste, zinemen kudeaketa enpresa berri batek hartu du bere gain eta, aitzakia honekin, honako foto-inkesta egin dugu:

1- Zinemara joaten zara ala pirata samarra zara?
2- Bereziki gogoratzen dituzun euskal pelikulak. Zergatik?
3- Bereziki gogoratzen dituzun pelikulak orokorrean. Zergatik?

Iratxe Lopez (Allo)

1. Bai, normalean hilabetean behin joaten naiz zinemara. Gehiago joango nintzateke, baina garestia da.

2. Euskal pelikulak asko gustatzen zaizkit, batez ere oso errealak direlako eta euskara gehiago ikasteko ondo etortzen zaizkidalako. Halere, eta «erreala» ez bada ere, bereziki gustatu zitzaidan *Errementari*, duela gutxi ikusi dut. Beldurra eta maitasuna transmititu zizkidan.

3. Orokorrean gustatzen zaizkidan filma motak drama, historikoa, abenturak, beldurrezkoak… dira, adibidez *El Pianista, La Lista de Schindler, Tres Anuncios a las Afueras* edo *El Cisne Negro*. Beldurrezkoen artean *Los Otros* bezalakoak, baina ez *El Exorcista* modukoak, gehiegizkoak baitira niretzat.

Irati Egaña (Antzin)

1. Filma interesgarririk egotekotan nahiago izaten dut zinemara joatea, hala ere, aitortu behar dut azkenaldian nahiko pirata bihurtzen ari naizela... hainbat film eta serie interesgarri deskubritzen ari naiz eta.

2. Azkenekoak *Patxi Errementari, Handia, Amama, Loreak* eta *Gartxot*. Iruditzen zait azken boladan sekulako maila dagoela euskal zinemagintzan. Oro har pelikula gogorrak eta sakonak dira nire ustez, barnetik ukitzen dutenak, gai berriak eta ausartak jorratzen dituztenak. Ez dira nolanahikoak! *Gartxot* eta *Amama* bereziki gustatu zitzaizkidan, hainbatetan ikusi ditut biak.

3. Kasuan kasu, baina orokorrean behin filma bukatuta ere, buruan zalantza eta galdera ugari uzten dizkizuten horiek gustuko ditut. Irakurketa ezberdinak egin daitezkeen horiek. Nahiko errealistak direnak baina era berean zurea ez den beste testuinguru batean kokatzen zaituztenak.

Jabi Arizaleta (Abaigar)

1. Zinemara gutxi joaten naiz... baina pirata are eta gutxiago, ez dut kontsumitzen ez bata eta ez bestea.

2. Ikusi nuen azken filma *Patxi Errementari* izan zen. Gomendagarria oso...

3. *Blade Runner, Trainspotting*...

Iker Zalduondo (Lizarra)

1. Zinemara joaten naiz estreinaldi bereziak ikustera soilik eta gainerako filmak Netflix katean ikusten ditut.

2. Gogoan dudan azken euskal filma *Handia* da, polita.

3. Bereziki gustatzen zaizkit dokumentalak; gaurkotasuna dudalako gustuko.

Gurutzegramak



Euskalglifoa

Bertsio klasikoan Robin Hood-en papera egin zuen aktorea

Goitik behera

1- Lizarrako oraingo enpresa kudeatzailea.
2- Lizarra inguruan Armendarizek egindako pelikula.
3- Zinema asmatu zuten anaiak.
4- Eszena hartualdia jakiteko eta soinua sinkronizatzeko tresna.
8- 2017ko pelikula, beldurgarria, eta izenburu laburrekoa.

Ezker eskuin

5- 1970eko gerra pelikula, Urbasan.
6- Lizarrako lehengo enpresa kudeatzailea.
7- Zinema zale porrokatua.

Fisioterapia Zentrua
Tel.: 626 775 603
Maite Dufur
Merindad kalea, 6 (B sektorea) • Estella-Lizarra

Elena Etxalar
Sorkunde Garbia pasealekua, 33
31200 Estella-Lizarra

Puy eguna 2018 Gazteriaren festak

MAIATZAK 24, OSTEGUNA:
09:30. Kalejira Villatuertako txarangarekin.
22:00. Foruen plaza, zezensuzkoa.

MAIATZAK 25, OSTIRALA

08:00. Dianak gaitero eta txistulariekin.
08:30. Dianak Estella-Lizarrako Musika Bandak eskainita. Goizez. Kalejira Alkaburua txarangak girotua.
10:30. Irteera Udaletxetik, Lizarrako Udal-korporazioa, Segizio Ofizialarekin lagunduta.
11:00. Puyko Ama Birjinaren Basilikan Meza Santua gure Zaindari Goitiaren ohoretan.
12:00-14:00. Foruen plaza. Parkea haurrentzat: puzgarriak…
14:30. Santiago plaza. Herri Bazkaria «X. Txerrikume-gorespen Eguna».
17:00. Santiago plaza. Musikaldia, Mexikoko kantak Chuchin Ibañez kantariarekin.
17:00-20:00. Foruen plaza. Parkea haurrentzat: puzgarriak…
18:30. Lizarra pilotalekua. Pilota partiduak
21:00. Foruen plaza. Gaita musika Ruiz-Echeverria gaiteroekin.
22:00. Foruen plaza, zezensuzkoa.

MAIATZAK 26, LARUNBATA
11:00. Donibane Garazko bandera igoko da Udaletxeko balkoian, jarraian dantzak Garaztarrak (Donibane Garazi) eta Larraiza dantza taldeekin.
11:15. Bi herrietako ordezkariak Udaletxetik irtengo dira Koroatze plazaraino Garaztarrak (Donibane Garazi) eta Larraiza dantza taldeekin.
12:00. Koroatze plaza. Suziria «X. Fiesta de la Juventud de Estella–Lizarrako Gazteriaren Festa» iragartzeko. Jarraian japoniar-lehergailuak.

Jarraian. Kalejira Jurramendi txarangarekin Garaztarrak eta Larraiza dantza taldeekin.

12:00etatik aurrera, goizez eta arratsaldez. Kalejira Alkaburua fanfarrearekin.

12:30etik, Koroatze plazatik Lizarra Kantuz irtengo da Garazi Kantuz (Donibane Garazi) taldearekin lagunduta.
13:00. La Bota Peñan kontzertua: Itziarren Semeak.
15:00. Foruen plaza, Herri-bazkaria «X. Día de la Juventud - Gazteriaren Eguna».
16:00-19:00. Koroatze plaza. Puzgarriak.
17:00. Irteera Lizarra pilotalekurantz, Jurramendi txarangarekin.
18:00. Lizarra pilotalekutik, kalejira.
18:30. Lizarra pilotalekua «I. Pilota Txapelketa Juventud-Gazteria Estella-Lizarra».
20:00. Irteera Lizarra pilotalekutik, kalejira Jurramendi txarangarekin.
20:00. Jai-eremua Lizarra pilotalekua. Dj´s
20:30. Foruen plaza, «Larrain Dantzaren XVIII. Eguna».
22:00. Foruen plaza, zezensuzkoa.
23:00. Jai-eremua Lizarra pilotalekua. Kontzertuak: Irkaia, Tibade.

MAIATZAK 27, IGANDEA
18:00. Zezen plaza. Izkin, salto eta errekorte erakustaldia. Jarraian, bigantxak zaletuentzat.

kotarro
42. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak
Garean Euskaldunon Elkartea

Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700

paper birziklatua

Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat izan du, Euskarabideak egiten duen idatzizko prentsarako, irratietarako eta on line hedabideetarako laguntzen deialdiaren bidez emana.

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.